

# LENGUA Y LITERATURA VASCAS



# Euskara Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan nola irakatsi

## *How to Teach Basque in Universities outside the Basque Country*

KARLOS CID ABASOLO

(UCM)

abasolo@filol.ucm.es

*Recibido: abril de 2016. Aceptado: mayo de 2016.*

**Laburpena:** Mundu zabaleko edozein euskal lektoretzatan euskara irakasteko modu egokia aurkeztu nahi du artikulu honek. Hortaz, proposamen bat besterik ez da hau, lanbide honetan jarduten edo jardungo dutenek erabat edo zatika onar lezaketanak edo, agian, oro har errefusatuko dutenak. Abiapuntua honako hau da: unibertsitatea ez da hizkuntza eskola, euskaltegi edo euskal etxe, eta unibertsitate mailako irakaskuntzak hori hartu behar du kontuan, alderdi filologikoak (euskararen historia eta gramatika) hizkuntza-trebetasunen jabekuntzaren gainetik jarritz.

**Hitz gakoak:** euskararen historia, gramatika, euskalkiak, hizkuntza-trebetasunak.

**Abstract:** This article presents a proposal based on personal experience about how to teach Basque in any university other than a Basque university. This scheme might be totally or partially accepted –if not completely rejected– by current and future teachers of the Basque language. The starting point is obvious: the university is not a school of languages, an academy or the Basque centre in Buenos Aires. It is my view that, when teaching Basque courses in non-Basque universities, philological aspects (history and grammar of the Basque language) should prevail over language skills acquisition.

**Key words:** History of the Basque language, grammar, Basque dialects, language skills.

### 1. SARRERA

Hizkuntzen irakaskuntzan, besteak beste, bi akats daude nahikoa zabalduak: linguistika hutsak nagusi izan beharko lukeen irakaskuntza motan hizkuntza-

trebetasunen<sup>1</sup> ikaskuntza nagusi izatea, eta hizkuntza-trebetasunen ikaskuntzak nagusi izan beharko lukeen irakaskuntza motan linguistika nagusi izatea. Bestela esanda, azken urteotan, *Boloniako prozesuaren* aitzakian, unibertsitateetako Filologia Fakultateak hizkuntza eskola bihurtzen ari dira hizkuntza-trebetasunen ikaskuntza lehenetsi dutelako (fakultateotako webguneetan hizkuntzen irakasgaien eduki eta helburuak irakurri baino ez dago horretaz ohartzeko). Aitzitik, Hizkuntza Eskola, euskaltegi, euskal etxe eta abarretan oraindik ere ba omen dira irakasleak hizkuntza-trebetasunak lehenetsi beharrean, eskola-ordu gehienak gramatikari eskaintzen dizkiotenak. Artikulu hau lehenengo esparrura mugatuko da, unibertsitate arlora.

Euskara munduko hainbat unibertsitatetan irakasten da. Eusko Jaurlaritzaren Etxepare Euskal Institutuak, ikasturte honetan (2015-2016), 29 irakurletza kudeatzen ditu 17 herrialde eta 37 unibertsitatetan sakabanatuak. Bada, lektorretza horietan euskara nola irakatsi behar den azaltzea dute orrialdeok xede. Sarrera moduko ikastaro batez ari naiz, noski, ikasturte erdikoa edo ikasturte osokoa, eta aurretiaz euskaraz deus ez dakiten ikasleei zuzendua. Proposamen hau Madrilgo Universidad Complutensen urtetan izan dudan esperientzian oinarritzen da. Egia da han profil jakin bateko ikasleak dauzkadala (espainiarrak, euskarari buruz ezagutza urria edo batere ezagutzarik ez dutenak, eta euskara hutsaren hurrengo deneko gradu bat ikasten ari direnak), eta ikasle profilak oso aldakorak direla herri batetik bestera eta unibertsitate batetik bestera. Dena den, proposamen honek irakurletza guztietarako balekoa izateko asmoa du, edozein delarik unibertsitate bakoitza kokaturik dagoen herria.

Ikastaroa hasi bezain laster, ikasleei galdetu behar zaie zer dela eta hautatu duten euskara (eta ez beste hizkuntza bat) eta zer espero duten ikastarotik. Denetariko erantzunak jaso daitezke, eta egongo dira arrazoi filologikoak aipatuko dituztenak, baina ez litzateke harritzekoa izango zenbaitek euskara praktikoa ikasteagatik izena eman izana. Eta aintzat hartu behar da euskal irakurletza dagoen hainbat tokitan ez dagoela euskaraz mintzatzen eta ulertzen ikasteko euskal etxe edo antzeko erakunderik eta, ondorioz, eskari horri ere nola edo hala eman behar diola erantzuna irakurletzak.

## 2. EUSKARA EUSKAL HERRITIK KANPOKO UNIBERTSITATEETAN NOLA EZ IRAKATSI

Besteak beste, hauek dira saihestu beharko liratekeenak:

- Hizkuntza-trebetasunen irakaskuntzara mugatzea.
- Material zaharkituak erabiltzea<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> Hots, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak zedarrituriko lau trebetasunak: mintzarena, entzundakoaren ulermena, irakurritakoaren ulermena eta idazmena, sei mailatan banaturik (A1, A2, B1, B2, C1, C2).

<sup>2</sup> Esaterako, irakurletza batek, 2011ko memorian, besteak beste, bi material hauek aipatu zituen: *Bai horixe* metodoa (1986.-1990. urteetako eta, irakurleak berak aitortzen zuenez, «zaharkitua»

- Euskarari buruzko mito faltsuak hedatzea, hala nola hizkuntza zaila dela<sup>3</sup>, Europako hizkuntza zaharrena dela, iberierarekin edo hizkuntza kaukasoarrekina ahaideturik dagoela<sup>4</sup>, aditz sistema oso berezia duela, deklinabidea duela, etab.

- Izen morfologiari dagokionez, ikasleei taula erraldoi bat ematea, hamasei/hamazpi kasu eta lau numero-paradigma biltzen dituen. Bada, horrelako taula askori<sup>5</sup> hainbat eragozpen jar dakizkieke, hala nola honakoak:

a) Euskarak deklinabidea duelako ideia okerra zabaltzen dute ikasleen artean.

b) Ez dituzte kasuak eta postposizio itsatsiak bereizten, denak kasutzat jotzen baitira.

c) Ez dute kasu/postposizio markak benetan zein diren zehazten. Esaterako, absolutibo singularraren marka gisa *-a* atzizkia agertzen dute, eta hori ez da zuzena, zeren *a* hori ez baita kasu marka, artikulatu mugatua baizik. Eta absolutibo marka  $\emptyset$  da, artikuluari erantzen zaiona.

d) Partitiboa kasutzat jotzen dute, eta ez da hala: partitiboa mugatzailea da<sup>6</sup>, kasu absolutiboari erantzen zaiona.

e) Ez dituzte ikaslearen sormena eta hizkuntza-intuizioa sustatzen. Izan ere, askoz egokiagoa izango litzateke, euskararen morfologiaren erregulartasun ia erabatekoari etekina atereaz, horrelako taula bat ikasleek beraiek sortzea irakasleak aurretik jakinarazitako kasu- eta postposizio-marketatik eta erregela morfo-fonologiko bakan eta sinple batzuetatik abiatuta, geroago ikusiko den bezala.

### 3. EUSKARA EUSKAL HERRITIK KANPOKO UNIBERTSITATEETAN NOLA IRAKATSI

#### 3.1 Helburuak

Horaziok *Ars poetica*-n esaten zuen poesiaren bi helburuak *docere et delectare* zirela, alegia, irakastea eta atsegina ematea. Bada, era berean, irakaskuntzak ikasleek modu atseginean ikastea izan beharko luke xede. Ikaslea euskararen ezagutzan murgiltzen den prozesuan berebiziko garrantzia du prozesu

---

dagoena, «idatzizkoa, behinik behin») eta Louis Lucien Bonaparteren 1863ko *Carte des sept Provinces Basques*. Euskalkiak aztertzerakoan, ondo dago Bonaparteren lana abiapuntu gisa erabiltzea, baina, era berean, ez da onargarria gai horri buruzko azken lanak, hala nola Koldo Zuazorenak, ez aipatzea, zeren euskalkien mapa, Bonaparteren garaitik honantz, nabarmen aldatu baita.

<sup>3</sup> Ideia hau egokiro gezurtatzen du Moreno Cabrerak (2007-2008).

<sup>4</sup> Niko Marr, A. Trombetti, R. Lafon, K. Bouda, Uhlenbeck, eta abar.

<sup>5</sup> Esaterako, honako honi: Elhuyar (1996) *Elhuyar hiztegia, euskara-gaztelania castellanovasco*, Usurbil (gramatika-eranskina, IV).

<sup>6</sup> <http://www.ehu.eus/seg/morf/5/5/4>

hori ahalik eta atseginena izateak. Ezagutza hori bi motatakoa izango da: alde batetik, euskarari buruzko historia eta geografiari buruzkoa, eta bestetik, gramatikari buruzkoa. Bigarren ezagutza horri dagokionez, ikastaroaren bukaeran, ikaslea euskal perpausak fonetikoki, azentualki eta morfologikoki aztertzeke gai izango da hiztegiaren laguntzarik gabe, zeren hitzen esanahia ezagutu gabe ere posible baita azterketa linguistikoa egitea.

Bestalde, eta unibertsitatearen helburua hori izan ez arren, ez genuke erabat baztertu behar ikaslea, neurri batean bederen, euskalduntzeke zeregina, kontuan harturik ez direla gutxi asmo horrek bultzatuta euskara irakasgaien izena ematen dutenak. Hortaz, eskola-orduen bi heren-edo euskal filologiaren (hots, euskararen historiaren eta gramatikaren) inguruan eman daitezke, eta heren bat-edo euskara praktikoa (hots, funtzio komunikatiboak) lantzen.

Zeintzuek izan behar lukete euskararen irakaskuntza (ustez) egoki baten oinarriak? Besteak beste, honako hauek:

- ✓ Hizkuntza-trebetasunak lantzeak ez du ardatz izan behar, osagarri baizik.
- ✓ Material gaurkotuak erabili (ahozko eta idatzizko testuak): irakasleak berak sortutako materialak, Interneteko baliabideak, irakurgaiak (besteak beste, bibliografian gomendatzen diren artikulua eta liburuak), etab.
- ✓ Euskal gramatika irakurletza kokatuta dagoen tokiko hizkuntzaren gramatikarekin erkatu (zertan diren berdin, zertan ezberdin). Irakasleak, hara joan aurretik, bertako hizkuntzaren gramatika-oinarriak ikasi beharko lituzke, tipologiakoak batik bat, hizkuntza hori zeinahi delarik ere.

Egia da ez dela gauza bera irakurletza Frantzia edo Hungaria egotea, euskaldun batentzat ez baita gauza bera frantses edo hungarieraz jakitea, baina, era berean, egia da hungarieraz ez dakienak denbora gutxian jaso dezakeela hizkuntza horri buruzko oinarriko informazioa euskararekin erkatu ahal izateko.

## 3.2 Alderdi filologikoa: historia eta gramatika

Esan bezala, hauexek da ikastaroaren atal nagusia, eskola-orduen bi heren-edo hartu beharko lituzkeena.

### 3.2.1 Gaiak

Zeintzuk dira landu daitezkeen gaiak? Irakasle bakoitzak izango ditu bere lehenespenak, baina hauexek izan litezke oinarrikoak:

1. SARRERA: ikuspegi orokorra eta mito faltsuen arriskua
2. EUSKARAREN JATORRIA ETA BILAKAERA HISTORIKOA

- 2.1 Euskararen geografia eta demografia<sup>7</sup>.
- 2.2 Euskararen balizko jatorri eta ahaidetasunen afera.
- 2.3 Euskararen estreinako lekukotasunak<sup>8</sup>: Antzinatea eta Erdi Aroa.
- 2.4 Beste hizkuntza batzuekiko kontaktua eta elkarreragina<sup>9</sup>.
3. EUSKALKIAK
  - 3.1. Euskalkien sailkapena<sup>10</sup>.
  - 3.2. Euskararen batasuna.
4. FONETIKA, FONOLOGIA ETA AZENTUA
  - 4.1. Bokalismoa eta kontsonantismoa<sup>11</sup>.
  - 4.2. Azentua.
5. IZEN MORFOLOGIA
  - 5.1. Euskal deklinabidea ezbaian jartzeko argudioak.
  - 5.2. Kasuak eta postposizio itsatsiak.
6. ADITZ MORFOLOGIA
  - 6.1. Aditz perifrastikoak eta trinkoak.
  - 6.2. Aditz erregimenak: ABS, ABS-DAT, ABS-ERG, ABS-DAT-ERG.
  - 6.3. Euskal aditz morfologia hainbat hizkuntzarenetatik hain urrun ez dagoelako frogak.

<sup>7</sup> Atal honetan, euskararen geografia eta demografia mendez mende nola aldatu den aztertzen da. Gaur egungo egoerari dagokionez, oso baliagarriak dira hizkuntza legedia (euskararen ofizialtasuna edo ofizialtasunik eza Ipar Euskal Herrian, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan) eta 1991tik aurrera bost urtean behin argitaratu diren inkesta soziolinguistikoak.

<sup>8</sup> Hots, Beñat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburua argitaratu baino lehenago-koak: 1545 arteko euskararen agerpen idatziak latinezko eta erromantzezko testuetan.

<sup>9</sup> Gai honetan oso garrantzizkoa da elkarreraginak eta antzekotasun soilak bereiztea, hori sarritan erraza ez bada ere.

<sup>10</sup> Gai honetan bi azpigai dira interesgarrietakoak:

- a) euskalkiak sortu zireneko garaiari buruzko teoriak: teoria zaharra (Oihenart) vs. teoria berria (Mitxelena, Zuazo).
- b) euskalkien sailkapena: Bonaparte (sailkapen zaharra) vs. Zuazo (sailkapen berria).

<sup>11</sup> Gai honetan hiru azpigai nabarmendu litezke:

- a) lenitio vs. fortitio: ahoskagarritasuna vs. pertzepzioa. Asimiliazioak, disimilazioak, bustidurak, neutralizazioak, epentesiak, protesi bokalikoak, etab.
- b) latinetik mailleguak antzemateko fonetikak duen garrantzia (esaterako, *pacem*-etik *bake*-rako jauzian «mozorro» fonetiko basterik ez dago).
- c) grafian islatutako aldaketa fonetikoak (<egingo>, <bake>) vs. grafian islatu gabeak (<txerrix>, <etzara>).

### 3.2.2 Zenbait estrategia

Ikaskuntza aktibo eta sortzailearen aldeko apustua egin behar da. Ikasleek, oinarrizko informazioa baliatuz, informazioa sortu egin behar dute. Esaterako, izen morfologiaren taula hutsik emango zaie, beraiek osa dezaten irakasleak prestatutako dossierrean zehazten diren honako hauek aintzat hartuta: izen-hondarkia-*ren* egitura<sup>12</sup>, kasu- eta postposizio-markak<sup>13</sup> eta erregela morfo-fonologikoak<sup>14</sup>.

Irakaskuntza eta ebaluazioa ez dira arlo teorikora eta jakintza soiletara mugatu behar. Jakintzak praktikara eramanez behar dira, ikasgelako eztabaiden eta ikasleek ikasgelan eta ikasgelatik kanpo egindako atazen bidez.

Bestalde, hizkuntza-konparaketa oso onuragarria da euskararen ezaugarri tipologikoak aztertzerakoan. Euskara hizkuntza ergatiboa dela esaten dugunean, ergatibitatea akusatibitatearekin alderatu behar da, «aditz iragangaitzen subjektua» (AIS), «aditz iragankorren subjektua» (ATS) eta «objektua» (O) kontzeptuak ardatz izaki. Ikasleek, izen berezi bat hartuta, beren hizkuntzan hiru esaldi osatuko dituzte, bakoitzean izen berezi hori AIS, ATS edo O izanik. Jarraian, ikasleak gai izango dira irakasleak prestatutako dossierrean ageri zaizkien lauki hutsak betetzeko (hiru funtzio bi laukitan). Haien hizkuntza akusatiboa bada, honelaxe beteko dituzte:

AIS, ATS [-markatua]	O [+markatua]
----------------------	---------------

Esan gabe doa deklinabidea duten hizkuntza akusatiboetan AIS eta ATS kasu nominatiboaren bidez adierazten direla, eta O, ordea, kasu akusatiboaren bidez.

Jarraian, «Peru hil da», «Peru hil du» eta «Peruk hil du» adibideen edo antzekoenen itzulpenean oinarrituz, honelaxe beteko dituzte ikasleek hizkuntza ergatiboen bi laukiak:

AIS, O [-markatua]	ATS [+markatua] Euskaraz, <i>-k</i> marka
--------------------	--

<sup>12</sup> Artilulua *-balego-* + pluralgilea *-balego-* + kasu- edo postposizio-marka.

<sup>13</sup>  $\emptyset$ , *k, i, en, n, ra*, etab.

<sup>14</sup> Erregela horiek hemen aurki daitezke: (Goenaga 1978: 107-143). Honatx euskarak dituen lau kasuetako hirurenak:

- Ergatiboarenak:
  - kontsonantea + *k* = kontsonantea + *e* + *k*
  - *ak* + *k* = *ek*
- Datiboarenak:
  - bokala + *i* = bokala + *r* + *i*
  - *ak* + *i* = *ei*
- Genitiboarenak:
  - bokala + *en* = bokala + *r* + *en*
  - *ak* + *en* = *en*



Hizkuntza ergatiboetan, AIS eta O kasu absolutiboaren bidez adierazten dira eta ATS kasu ergatiboaren bidez.

Bestalde, lehenago aurreratu bezala, uste oker eta, hala ere, oso zabalduak gezurtatu behar dira. Izen morfologiari dagokionez, txit argigarria da Pello Salaburuk, froga ugari emanaz, *Sareko Euskal Gramatikan*<sup>15</sup> dioskuna: euskararen ez dagoela deklinabiderik, lau kasu baino ez dituela, eta kasutzat jo ohi diren gainerakoak postposizio itsatsiak direla.

Aditz morfologiari dagokionez, oso ohikoa da esatea euskal aditza oso berezia dela gainerako hizkuntzekin alderatuta. Jakinaenez, euskal aditzak lau erregimen ditu: ABS, ABS-DAT, ABS-ERG eta ABS-DAT-ERG (edo, bestela esanda, NOR, NOR-NORI, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK). Hortaz, aditzean hiru funtzio sintaktiko ager daitezke islatuta morfologiaren bidez: subjektua (aditz iragangaitzena zein iragankorra), objektu zuzena eta zehar objektua.

Konjugazio edo aditz komunztadura pluripertsonalak adizki bakar batean partaide batzuk biltzen ahal ditu: subjektua, osagarri zuzena (gehienetan, markatu gabe) eta zeharkako osagarria. *Darama* adizkia *daramakio* adizkiarekin alderatuz gero, berehala atzematen da ekintzako hirugarren partaidea, zeharkako osagaiarena egiten duena. Ikus ditzagun beste adibide batzuk:

*ekarri d-i-da-zu*: laguntzaileko *d*- orainaldiaren adierazlea da, *-i*- artizki bat da, *-da*- singularreko lehen pertsonaren adierazlea eta *-zu* singularreko bigarren pertsonarena (...) <sup>16</sup>.

Okerra da, ordea, hori berezitasun gisa planteatzea, gainerako hizkuntzek bestela jokatu balute bezala. Espainierazko «llévame», «dámelo» eta espainiera zaharraren «dífole» aditzetan funtzio horiexen markak daude eta aditzari itsatsita agertzen dira edo, indikatiboari dagokionez, noizbait agertzen ziren. Areago: hizkuntza indoeuoparren izenorde klitikoak aditzaren parte dira nahiz eta aditzetik bereiz idatzi, hots, idatzizko «me lo dijo» ahoz «melodijo» dela, txekierazko «řekl mi to» «řeklmito» dela eta, era berean, euskarazko «esan zidan» «esantzidan» dela. Hirurak, ABS-DAT-ERG. Hizkuntzak idazteko moldeak ez gaitu itsutu behar hizkuntzak aztertzerakoan, zeren ahozko moldeak baita benetan aztergai izan behar duguna. Euskararen irakaskuntzan erabili ohi diren aditz-taula horiek beste hizkuntza askori, hala nola erromaniko eta eslaviarrei ere, aplikatu dakizkieke. Hona hemen adibide bat: ABS (objektua)-DAT (zehar objektua)-ERG (subjektu transitiboa) taula bana, euskararena lehenengoa eta espainierarena bigarrena.

<sup>15</sup> Salaburu, P. «Kasu markak. Kasu markez eta deklinabideaz ohar bat», *SEG*, <http://www.ehu.eus/seg/morf/5/5>.

<sup>16</sup> Igartua / Zabaltza (2012:18-19).

	erroa	ABS	DAT	ERG
d	i		t	t
d	i		k/n	k/n
d	i	Ø	o	—
d	i		gu	gu
d	i		zu	zu
d	i		zue	zue
d	i	zki	e	te

ZEHAR OBJEKTUA	OBJEKTU ZUZENA	SUBJEKTUA	PARTIZIPIOA
me		he	comprado, dicho, traído...
te/se		has/ha	
se	lo/la	ha	
nos		hemos	
os/se		habéis/han	
se	los/las	han	

Ezberdintasuna zertan da? Espainieraren aditza ez dela horrela irakasten.

Bestalde, euskal aditzaren ustezko berezitasuna maiz lotzen da euskal aditzaren ustezko zailtasunarekin.

Adizkiak, bereziki konjugazio pluripertsonalaren barnan, oso modu ikusgarrian zailtzen ahal dira, adibide hauek frogatu bezala (egiazko kasuak dira, baina gutxi erabiliak): *ziezazkiguketen*, *z-ieza-z-ki-gu-ke-te-n* morfemetan zatitua, edo *generamazkionan* (emakume bati hitz egiten zaionean), *ge-ne-ram(a)-z-ki-o-na-n* morfemetan zatitua<sup>17</sup>.

*Ziezazkiguketen* adizkiaren espainierazko baliokidea aztertuz gero, zailtze beraren aurrean egongo gara: «nos los hubieran podido» aditza, zeina «nosloshubieranpodido» moduan ahoskatzen den, berdin-berdin azter daiteke morfemaz morfema (*nos-los-hub-ieran-pod-i-do*), eta, hala ere, espainieraren gramatikolari zenbaitek ez dute espainieraren zailtasuna ahotan erabiltzen; areago, kontrakoa baietsi ohi dute, hots, espainiera hizkuntza «erraza» dela.

Bestalde, aditz morfologiak beste uste oker bat ezeztatzeko balio digu: euskara *erabat* ergatiboa delakoa. Datuei erreparatuta, ñabartu egin behar da baieztapen hori, euskara ez ez baita *erabat* ergatiboa, *neurri handi batean* bai-

<sup>17</sup> Ibídem, 20.

zik. Izan ere, euskara ez da ergatiboa lehenaldiko ABS-DAT-ERG aditzetan, ezta ABS 3. pertsona den lehenaldiko ABS-ERG aditzetan ere. Jakina denez, horri *ergatibitate hautsia* deritzo (Artiagoitia 2014: 240).

Izen morfologiaren taula ikasleek beraiek «sor» dezaketelarik ere, izan gaitzen errealistak eta aitor dezagun halakorik ezin dela egin (edo, hobeto esanda, ez dela komeni egitea, ikasleak zoratu ez daitezen) aditz morfologiarekin. Hobe dugu ikasleei taula osatuak eman (aditz laguntzaileena eta aditz trinkoena), hori bai, soilik modu indikatiboan. Komeni da, bestalde, aditzaldi jakin batzuetara mugatzea, hala nola orainaldi puntual, orainaldi burutu, geroaldi, lehenaldi burutu eta lehenaldi burutugabera.

Artikulu honen hasieran aurreratu bezala, ikastaroaren bukaeran ikasleak euskal perpausak fonetikoki, azentualki eta morfologikoki aztertzeko gai izango dira, hiztegiaren laguntzarik gabe, zeren posible baita hitzen esanahia ezagutu gabe azterketa linguistikoa egitea. Lagin gisa, hona hemen ondoko perpausaren gainean ikasle txinatar (bikain) batek, zeinak ikastaroa hasi aurretik euskarari buruz ezer ere ez baitzekien, egindako analisia:

*Igandean lau herritako alkateek manifestaldi bat antolatu zuten futbolaren kontra*

a) Azentua:

*Igándeàn láu herrítakò alkáteèk manifestàldi bàt antólatù zutèn futbólarèn kóntra*

b) Aditz morfologia:

aditza	erregimena	pertsonak	aldia
antolatu zuten	ABS-ERG	ABS: 3. sing. ERG: 3. pl.	lehenaldi burutua

c) Izen morfologia:

hitza	kasua / postposizioa	numeroa
igandean	p. inesiboa	singularra
herritako	p. leku-genitiboa	mugagabea
alkateek	k. ergatiboa	plural urruna
bat	k. absolutiboa	mugagabea
futbolaren	k. genitiboa	singularra

## d) Fonetika:

hitza	aldaketa fonetiko	aldaketaren izena
igandean	$e \rightarrow i / \_\_\_ a$	disimilazioa
igandean	$a \rightarrow e / i \_\_\_$	asimilazioa
igandean	$g \rightarrow \gamma$	frikazioa
igandean	$\gamma \rightarrow \emptyset$	frikariaren galera
herritako	$t \rightarrow c / i \_\_\_ V$	bustidura
herritako	$h \rightarrow \emptyset$	hasperenketaren galera
alkateek	$e \rightarrow i / \_\_\_ e$	disimilazioa

Honelako perpausen analisisian, irakasleak etengabe azpimarratu behar izaten du izen morfologia eta aditz morfologia, hizkuntza guztietan bezala, bat datoze-la euskararen ere, eta bestela, analisisia oker dagoela. Aipatu adibidean, ALKA-TEEK ergatibo pluralean dago eta aditz laguntzaileak 3. pertsona pluralaren ergatibo marka du (TE); bestalde, BAT absolutibo mugagabea dago eta aditz laguntzaileak 3. pertsona singulararen absolutibo marka du ( $\emptyset$ ).

Adibide berarekin bueltaka, hona hemen ikasgelan behin lau ikasleren artean sortutako hizketa, hemen euskarara itzulia:

$Ik_1$ : «*Manifestaldi zergatik ez da datiboa?*»

$Ik_2$ : «*Aditzean ez dagoelako datibo-markarik*».

$Ik_3$ : «*Datibo singularra -ari delako, ez -i*».

$Ik_4$ : «*Bat daukalako atzean, eta hori da hain justu deklinatzen dena*»<sup>18</sup>.

### 3.3 Hizkuntza-trebetasunen ikaskuntza

Lehenago esan bezala, euskara praktikoa irakasteak (euskaraz mintzatzen eta ulertzen irakasteak, alegia) ez luke ikastaroaren heren bat baino gehiago hartu behar. Eta honako ezaugarri hauek ere eduki beharko lituzke, besteak beste:

a) Atsegina eta gramatkarik gabekoa izan behar du, hizkuntza-jabekuntzan gertatu ohi den bezalaxe (ume euskaldunek euskaraz hitz egiten dute ergatiboa zer den jakin ez arren).

<sup>18</sup> Ikastaroan hiru hilabete eskas zeramatzen lau ikasle erdaldunon artean euskarari buruzko halako hausnarketa entzutea biziki pozgarria izan zen. Dena den, aitor dut ez dudala ikasturte guztietan horrelako ikasle bikainik izaten, zoritxarrez.

b) Funtzio komunikatiboetan oinarrituta egon behar du. Sarrera-ikastaro honetako unitateak «izena», «jaioterria», «bizilekua», «adina» eta abar izango dira. Eta unitate bakoitzarekin honako hauek adierazteko gaitasuna lortuko du ikasleak (har dezagun «izena» adibidetzat): bere izena esan; beste norbaiten izena esan; norbaiti izena galdetu; norbaiti beste norbaiten izena galdetu; norbaiten izena galdetzen dionean, erantzun; norbaiten beste norbaiten izena galdetzen dionean, erantzun. Eta berdin «jaioterria», «bizilekua» edo «adina» unitateekin. Bada, oso denbora gutxian, ikaslea ondokoan antzekoak esateko gauza izango da: «Pedro naiz, Argentinakoa naiz, Historiako ikaslea naiz, Buenos Airesen bizi naiz eta hogeitau urte daukat», «nola duzu izena?», «Pedro», «nongoa zara?», «Argentinakoa», «zer zara?», «Historiako ikaslea», «non bizi zara?», «Buenos Airesen», «zenbat urte daukazu?», «hogeitau». Eta hori guztia, irakasleak ikasgelan «inesiboa», «non kasua» edo horrelako hitz edo esapiderik erabili gabe.

c) Hizkuntza-trebetasunen hierarkia: ahozko ulermena eta mintzamina lehenetsi behar dira. Hierarkiaren hurrengo mailan irakurmena dago, hobeto esanda, irakurritakoaren ulermena. Eta, azkenik, idazmina, sarrera-ikastaro honetatik bazter daitekeena.

d) Ekonomia linguistikoa sustatu, mintzamolde errealak imitatze eta ikasprozesua ahalik eta gehien errazteko. Esaterako, erantzunetan, galderaren osagaiarik (hots, mintzagairik) ez erabiltzera behartu behar dira ikasleak. «Zenbat urte dituzu?» galderaren erantzun gisa «hogeitau» esan behar dute, eta ez «nik hogeitau urte ditut»<sup>19</sup>.

e) Metodo egokiak eta material propioa erabili, metodo zaharkituak eta gramatika oinarritutakoak baztertuz.

f) Euskararen ustezko zailtasunaren mitoa saihestu.

g) Ahal dela, lehenengo egunetik bertatik euskaraz beste hizkuntzarik ikasgelan ez erabili. Horrek hainbatentzat ezinezkoa irudi badezake ere, egingarria da, nahiz eta euskaraz hitz egiten ez den eremu batean egon. Egia da irakaslearentzat eta ikasleentzat beste hizkuntza bat «makulu» gisa erabiltzea baino nekagarriagoa dela euskara hutsezko metodo hau, baina era berean, ikasprozesua nabarmenki azkartzen da, lehenengo unetik ikaslea euskararengan murgiltzen delako, hizkuntza-ikaskuntza bainoago hizkuntza-jabekuntza gertatzen delarik. Metodo honetan berebiziko garrantzia dute irudiek, zenbakiak, kinesiak, eta abarrek, eta hiru hizkuntza-trebetasun ditu oinarri: entzutea, irakurtzea eta mintzatzeta. Eta bi zentzumen: ikusmena (irudiak eta keinuak funtsezkoak dira) eta entzumena.

<sup>19</sup> Zoritxarrez, badira euskara irakasleak ikasprozesua zailtzen dutenak, hain juxtu, eta besteak beste, ikasleak erantzunetan galderaren osagaiak (hots, mintzagaiak) erabiltzera behartuz. Esaterako, «nola duzu izena?» galderaren erantzun gisa, «Pedro» beharrean, «nik Pedro dut izena» esanarazten diete.

### 3.4 Materialak<sup>20</sup>

Zorionez, gaindituak dira ikaslearen informazio iturri bakarra irakaslearen azalpenak ziren garaiak. Irakasleak ikaslearen ikasprozesu autonomoa bultzatu behar du, eta bere azalpenak gai bakoitzaren sarrerara eta une puntualetara mugatu behar dira eraginkorrek izango badira. Honatx, beraz, eta besteak beste, gai bakoitzari buruz ikasleak, irakaslearen azalpenez gain, eskura behar dituen baliabideak:

a) Irakasleak prestatutako dossierra (oinarrizko apunteak, adibidetegiak, ariketak, etab.). Paperean edo kanpus birtualean.

b) Oinarrizko irakurgaiak, askotariko formatudunak: liburuak, artikulak akademikoak, prentsa-artikuluak, etab.

c) Ikus-entzunezkoak<sup>21</sup>.

d) Ikasleek bilatutako informazioa, beti ere irakaslearen galbahetik pasatu beharrekoa, informazio guztiak ez baitira fidagarriak (eta euskararen gaia ez da salbuespena, ezta gutxiago ere).

e) Euskararen ikaskuntzan sakondu nahi duten ikasleei *online* ikasten jarraitzeko aukera eman dakieke. Aipa dezagun, adibide gisa, BOGA sistema multimedia<sup>22</sup>.

Euskaraz irakurtzeko gai ez direnez, ikasleek ezin izango dute baliatu, jakina, euskarazko irakurgai eta ikusgaiak<sup>23</sup>. Universidad Complutenserako hautaturiko material askotarikoa espainieraz dago eta euskal irakurletzak dituzten Latinoamerikako unibertsitateetan ere erabil daiteke. Baita gainerako unibertsitateetan ere, baldin eta irakasgai honetan izena emandako ikasleek espainieraz badakite<sup>24</sup>. Bestela, ingeles eta frantsesezko bibliografia lehenetsi beharko litzateke.

### 3.5 Ondorioak

Irakasle garenok nola irakatsi ez ezik, nola ez irakatsi ere erabaki behar dugu, azken finean aukera guztien artean beti hautatzen baikabiltza etekin

<sup>20</sup> Gaika sailkaturiko irakurgai eta entzungaien zerrenda 3.6.3. atalean dago. Bestalde, ariketen lagina hemen agertu beharrean, ondoko esteka honetan dauka ikusgai interesa lezakeenak:

[https://cv4.ucm.es/moodle/pluginfile.php/3394980/mod\\_resource/content/2/Materialak%20eta%20ariketak.pdf](https://cv4.ucm.es/moodle/pluginfile.php/3394980/mod_resource/content/2/Materialak%20eta%20ariketak.pdf)

<sup>21</sup> Abiapuntu gisa, gomendagarriak izan litezke ETB2ko *Vaya Semanita* saioko esketx ugari, Youtuben ikusgai daudenak. Umorea ardatz dutenez, ikasleen eztabaidarako gogoia pizten dute, batik batik gai soziolinguistikoak eta euskarari buruzko mito faltsuak jorratzerakoan. Bestalde, euskararen erabilera sustatzeko ekoiztutako hainbat bideo instituzionalek ere eman dezakete hizpidea.

<sup>22</sup> <http://www.ikasten.ikasbil.eus/>

<sup>23</sup> Dena den, litekeena da kreditu errazen eskiztan ikastaroan izena ematen duten ikasle euskaldunak egotea. Hala bada, haiei eman dakieke euskarazko material horiek euskaratik itzultzeko lana.

<sup>24</sup> Kontuan har bedi euskara ikasketak, unibertsitate anitzetan, Filologia Erromaniko edo Espainiar Filologiako Departamentuei atxikita daudela.

gehien atera diezaiekegunak. Horrexegatik hasi dut artikulu hau euskara Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan nola ez irakatsi azaltzetik, beti ere onartuz inor ez dela egia osoaren jabe eta aurkako argudioak aurki daitezkeela. Gomen-datzen ez dudan irakasmodu horrek hiru zutabe ditu: hizkuntza-trebetasunen irakaskuntzara mugatzea, euskarari buruzko uste okerrak hedatzea eta material zaharkituak erabiltzea. Nire proposamena, ordea, kontrako bidetik doa, hau da, aurreko hiru oinarri horiek saihestetik. Nola? Material gaurkotuak erabiliz, hizkuntza-trebetasunen irakaskuntza osagarri soiltzat hartuz, euskara beste hizkuntza batzuekin erkatuz eta euskarari buruzko datu frogagarriak emanez, hala nola, (eta zenbait jendek beltzuri egin arren), euskara ez dela inguruko hizkuntzetatik alderatuta hain ezberdina eta ez dela frantsesa edo espainiera baino zaharra.

Euskararen «erraiak» aztertzean datzan metodo honen bidez, ikaslea:

- euskarari buruzko hainbat informazioen jabe izango da.
- euskal testuak hitzen esanahia ezagutu gabe aztertzeiko gai izango da ikuspuntu azentual, fonetiko eta morfologikotik. Izan ere, ikastaroko ariketa garrantzizkoenatariko bat (eta, beraz, baita azterketaren zati nagusietakoa ere) esaldiak horrela aztertzea izango da.

### 3.6 Bibliografia eta Interneteko baliabideak

#### 3.6.1 *Ikas-materialei dagokien bibliografia*

Artiagoitia, X. (2014) «Una vuelta al mundo de la morfología vasca (preferiblemente en menos de 60 minutos)», *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca*, 19, Madril, UNED, 231-245.

<http://revistas.uned.es/index.php/RLLCGV/article/view/13767/12453>

Bonaparte, L. L. (1863) *Carte des Sept Provinces Basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*, Londres, Stanford's Geographical Establishment.

Cid Abasolo, K. (2002) «Las fronteras de la lengua vasca a lo largo de la historia», *Revista de Filología Románica*, 19, Madril, Universidad Complutense, 15-36.

<http://revistas.ucm.es/index.php/RFRM/article/view/RFRM0202110015A/10736>

Cid Abasolo, K. (2013) «Hibridismo lingüístico en la Vasconia peninsular: sustrato vasco en el español», *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca*, 18, Madril, UNED, 263-282.

Cid Abasolo, K. (2014): «Hibridismo lingüístico en la Vasconia peninsular: influjo de la lengua castellana en la lengua vasca», *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca*, 19, Madril, UNED, 247-266.

Elhuyar (1996) *Elhuyar hiztegia, euskara-gaztelania castellano-vasco*, Usurbil.

Euskal Herriko Unibertsitatea, *Sareko Euskal Gramatika*. <http://www.ehu.es/seg>

Euskaltzaindia (1985, 1987, 1990, 1993, 1994, 1999, 2005, 2011) *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* - I, II, III, IV, V, VI, VII.

[http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_content&view=article&id=776&Itemid=595&lang=eu](http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=776&Itemid=595&lang=eu)

Eusko Jaurlaritza et alii (1997) *Encuesta Sociolingüística de Euskal Herria 1996. La continuidad del euskera, II*.

Eusko Jaurlaritza (2003) *Encuesta Sociolingüística de Euskal Herria 2001. La continuidad del euskera, III*.

Eusko Jaurlaritza (2008) *IV Encuesta Sociolingüística. 2006: Comunidad Autónoma Vasca, País Vasco Norte, Navarra, Euskal Herria*.

Eusko Jaurlaritza (2013) *V Encuesta Sociolingüística. 2011: País Vasco, Comunidad Autónoma Vasca, Navarra, País Vasco Norte*.

[http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es\\_6092/ikuspegi\\_sozio\\_linguis.html](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/ikuspegi_sozio_linguis.html)

Goenaga, P. (1978) *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia, 107-143.

HABE (2005): *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa*.

[http://www.habe.euskadi.eus/s23-4728/eu/contenidos/informacion/euro\\_marko/eu\\_euro\\_mar/adjuntos/europako\\_markoa.pdf](http://www.habe.euskadi.eus/s23-4728/eu/contenidos/informacion/euro_marko/eu_euro_mar/adjuntos/europako_markoa.pdf)

Igartua, I. / Zabaltza, X. (2012) *Euskararen historia laburra / Breve historia de la lengua vasca / A Brief History of the Basque Language*, Euskal Kultura Saila, Colección Cultura Vasca / Basque Culture Series 1.

<http://www.etxepareinstitutua.net/banners/euskara.pdf>

Michelena, L. (1961) *Fonética histórica vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Michelena, L. (1964) *Textos arcaicos vascos*, Madril, Minotauro.

Michelena, L. (1986) «La lengua vasca», in HARITSCHELHAR, Jean et alii, *Ser vasco*, Bilbo, Gero. Jatorrizko bertsioa: (1983) *Être basque*, Toulouse, Editions Privat.

Moreno Cabrera, J. C. (2000) *La dignidad e igualdad de las lenguas*, Madrid, Alianza Editorial. (130-131: euskal morfologia).

Moreno Cabrera, J. C. (2007-2008) «Sobre la complejidad y dificultad de las lenguas. El caso del euskera», *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca*, 13, Madril, UNED, 199-216.

<http://e-spacio.uned.es/fez/eserv.php?pid=bibliuned:Llcv2007-1008&dsID=sobrelacomplejidadydificultadlenguas.pdf>



- Rodríguez Alberich, G. / Real Academia Española (2014) *Dirae*, <http://www.dirae.es>
- Saizarbitoria, R. (2002) «La convivencia lingüística en cuatro escenas cotidianas», *El Correo*, 68-69, urtarrilak 26.
- Salaburu, P. «Kasu markak. Kasu markez eta deklinabideaz ohar bat», *Sareko Euskal Gramatika* (SEG), <http://www.ehu.es/seg/morf/5/5>
- Zaldua, I. (2008) «Una jornada en una lengua minoritaria», *Público*, uztailak 31.
- Zuazo, K. (2010) *El euskera y sus dialectos*, Irun, Alberdania.
- Zubiri, I. / Zubiri E. (1995) *Euskal gramatika osoa*, Bilbo, Didaktiker. Espainierazko bertsioa: (1995) *Gramática didáctica del euskera*, Bilbo, Didaktiker.

### 3.6.2 Gaika sailkatutako zenbait ikas-material (irakurgaiak eta ikus-entzunezkoak)

1. SARRERA: ikuspegi orokorra eta mito faltsuen arriskua
  - Moreno Cabrera, J. C. (2000: 130-131).
  - Moreno Cabrera, J. C. (2007-2008).
  - «Marimaistra»ren bideoa euskararen zailtasunari buruzko mito faltsuaz (euskaraz): <https://www.youtube.com/watch?v=0bQXnI5X8AE>
  - Manuel Fraga politikari espainiarraren adierazpenak: <http://www.youtube.com/watch?v=dvpFUK7YU9E>
2. EUSKARAREN JATORRIA ETA BILAKAERA HISTORIKOA
  - a) Euskararen geografia eta demografia.
    - Cid Abasolo, K. (2002).
    - Inkesta soziolinguistikoak: [http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es\\_6092/ikuspegi\\_sozio\\_linguis.html](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/ikuspegi_sozio_linguis.html)
    - Igartua, I. / Zabaltza, X. (2012: 40-81).
    - Interneten eskuragarri dauden informazioak: lurralde bakoitzaren hizkuntza ofizialtasuna, hizkuntza legeak, irakaskuntzako hizkuntza ereduak, hizkuntza profilak.
    - Zaldua, I. (2008).
    - Saizarbitoria, R. (2002).
    - Vaya Semanita telebista saioko «Atraco en euskera» bideoa: <http://www.youtube.com/watch?v=bzWduBQ5Gck>

- Vaya Semanitako «Atraco en euskera II» bideoa:  
<http://www.youtube.com/watch?v=JZqhRtwkv5c>
  - «Guk ere euskaraz 03» bideoa, euskaraz:  
<https://www.youtube.com/watch?v=qESL-fBExWU&feature=related>
  - «Euskaldunberriaren sketxa» bideoa, euskaraz:  
<https://www.youtube.com/watch?v=Q4Hz7-7pQQw&nohtml5=False>
  - «Caca zertifikatua» bideoa, euskaraz:  
<https://www.youtube.com/watch?v=Em1Xzm9hEpA&nohtml5=False>
- b) Euskararen balizko jatorri eta ahaidetasunen afera.
- Igartua, I. / Zabaltza, X. (2012: 32-39).
- c) Euskararen estreinako lekukotasunak (Antzinatea eta Erdi Aroa).
- Michelena, L. (1964).
- d) Beste hizkuntza batzuekiko kontaktua eta elkarreragina.
- Dirae (<http://www.dirae.es>).
  - Cid Abasolo, K. (2013, 2014).
3. EUSKALKIAK
- Bonaparte, L. L. (1863).
  - Zuazo, K. (2010).
  - Igartua, I. / Zabaltza, X. (2012: 26-31).
  - «Euskararekin bat» bideoa (euskaraz):  
<https://www.youtube.com/watch?v=IBtHnIrFwqI&nohtml5=False>
4. FONETIKA ETA AZENTUA
- Michelena, L. (1961).
  - Zubiri, I. / Zubiri E. (1995: 20-26). Espainierazko bertsioa.
5. IZEN MORFOLOGIA
- Artiagoitia, X. (2014: 231-234, 239, 241-245).
  - Salaburu, P. «Kasu markak. Kasu markez eta deklinabideaz ohar bat», *SEG*.
  - Goenaga, P. (1978: 107-143).
6. ADITZ MORFOLOGIA
- Artiagoitia, X. (2014: 234-240).

### 3.6.3 *Euskara online ikasteko metodoak*

- AEK: <http://www.egela.aek.eus/>
- Boga: <http://www.ikasten.ikasbil.eus/>
- El Correo / Universidad de Deusto: <http://servicios.elcorreo.com/euskera/>
- Ikasten.net: <http://www.hiru.eus/e-ikasi/idiomas/ikasten>

